

# bidegileak



**Frantzisko Laphitz (1832-1905)**

Egilea:

**OSCAR ALVAREZ GILA**

## Idazle on eta estimatua

**F**rantzisko Laphitz: apaiz, predikatzailerik eta idazle nafarra. Horrela laburbiltzen da gure artean, euskal literaturari buruzko liburuetan batik bat, hurrengo lerro hauetan hurbilduko garen pertsonaiaren nortasuna. Idazle on eta estimatua ere izan zela azpimarratu ohi dute, besteak beste Koldo Mitxelena, Pierre Lafitte edo aita Luis Villasante bezalako euskaltzale eta filologoenek. Ez dugu, hortaz, pertsonaia ahaztua; euskal literaturaren munduan nahiko oroitua baizik. Baina hortik aurrera, bere bizitzaren inguruko xehetasun eta gorabeherak oraindik gaizki edo gutxi ezagunak zaizkigu, Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo. Gure artean, Amerika-



Frantzisko Laphitz (1832-1905)

ra joan orduko arrastoa galtzen diogu, bistatik erabat desagertzen zaigu; itsasoaren bestaldean, aldiz, han eginiko lanari merezimendu osoa ematen diote, heldu baino lehenago egin zuena ahaztuta. Eta, egia esan, gorabehera horiek hain ziren zabal eta anitzak, eta bere ospea, Euskal Herriaz gain, Ameriketako lurraldeetan ere hainbeste hedatu zen, bere bizitza osoki ezagutzea benetan merezi baitu. Han eta hemengo berriak ematen, eta ezjakiteak eta hutsuneak betetzen saiatuko gara, Frantzisko Laphitzen bizitzaren ikuspegi ahalik eta orokorren bat egiteko asmoz.

## Bizitza bat, bi munduren artean

Bere jaiotzaren inguruan ere ez zetozen bat ikerlariak. 1832 urtean jaio zela denek onartzen zuten, bai; baina adostasunak hemen bukatzen ziren. Otsailean ala irailean jaio al zen? Arizkunen ala Irisarrin? 1905ean Buenos Aireseko artzapezpiku-barrutiaren buletinak, esaterako, irisarritartzat hartzen zuen; hurrengo urtean, aldiz, Nafarroako Foru Aldundiak eta *Diario de Navarra*-k omenaldi bat eskaintzen zioten Baztanen, bertoko semea izateagatik. Nafarra ala baxenafarra al zen, beraz? Nikolas Alzolak 1963an auzia betiko argitu zuen, Arizkungo parrokiaren

bataio-agiria *Boletín de la Sociedad Bascongada de los Amigos del País*-en argitara eman zuenean:

Mila zortziehun eta hogeita hamabiko irailaren hogeita hamarrean, arratsaldeko lau t'erdietan jaio eta hurrengo egunean, Arizkungo herriko San Juan Bautista Parrokiaren Erretorea naizen nire baimenarekin, bertoko apaiz Benefiziarioa den Tomas de Iribarrenek bataioa Francisco Esteban Angel Lapitzi eman zion, herri honetan jaioa, Frantziako Nafarroa Behereko Irisarri herrikoa den Bernardo Lapitz, eta Arizkungo-koa den María Josefa de Arriada gurasoko dituela, biak Arizkunen bizi direnak [...].



Arizkunen, amaren sorterrian, jaio zen Frantzisko Lapitz, eta bertako elizan bataiatu


Gurasoak, beraz, mugaren bi aldekoak zeuzkan. Ez dirudi, gainera, Arizkunen kasualitatez jaio zenik, batzuek seinالاتu duten bezala, gurasoak merkatu egun batera etortzeko muga gurutzatu omen zutelako. Bernardo eta Josefa aspalditik zeuden finkaturik Baztango haranean. Bikotearen bi alaba Arizkunen bertan jaioak ziren, 1828an eta 1830ean. Edonola ere, Frantzisko jaio eta gutxira familia aitaren herrira itzuli zen; arrazoiak ez daude oraindik garbi, hala ere Espainiako lehen gerrate karlistaren pizteak zerikusi handia izan zuela erraz asko suposa daiteke.

Hau dela eta, Frantziskok haurtzaro osoa Iri-sarrin igaroko zuen, eta ikasketak Ipar Euskal Herrian hasi eta osatuko zituen, anitzen-tzat bertoko semea zeneko zalantzarik ez zegoen.

Espainiarentzat Francisco Esteban Angel Lapitz y Arriada zena, Frantziako agintarientzat François Lapitz bilakatu zen; gerora Iparralde osoan bere herrikideek Frantxua Lapitze izenez ezagutuko zuten, eta Ameriketara joan orduko, Francisco Laphitz bataiatuko zuten Argentinan eta Uruguain. Lau izen, hiru nazionalitate, bi kontinente, baina guztia gaineratik pertsona bakarra eta, hitz batez, nortasun sendo bat: euskalduna.



Irisarrin, aitaren sorterrian, egin zuen Lapitzek haurtzaroa



Larresoroko ikastetxean egin zituen Lapitzek bigarren hezkuntzako ikasketak

## Euskal Herrian erretore eta idazle

Frantzisko gazteak, orduko beste euskal gazte askok bezala, urratsak Elizaraino zuzendu zituen. Ez zen batere harritzekoa; Frantzian, Espainian... Europa osoan Euskal Herria Eliza katolikoaren harrobirik emankorrenetako bat baitzen. Frantzian, gainera, iraultzaren azken oihartzunak itzali zirenerako Elizak «uholde iraultzailean» galdutakoa berreskuratzeari ekin zion adorez. Han-hemenka apaizgaitegiak berreraiki eta apaizgorako hautagai berriak erakartzen hasi ziren; eta

kongregazio eta institutu erlijioso berriak antolatu ziren, herria berriro katolizismoaren magaletara bildu ahal izateko: parrokiak, misioak, eskola katolikoak... bide guztiak egokiak ziren helburu honentzat. Eta Euskal Herriak, Britainiak edo Alsaziak bezala, erronka honi gogo on eta oparoz ihardetsi zion.

Hasiera batean, Larresoroko seminario txikian sartu zen ikasle. Honek, hala ere, ez zuen esan nahi apaizgorako behin betiko bidea hartzen zuenik; Larresoro, apaizak presatzeko hazitegia izateaz gain, Ipar Euskal Herri osoarentzako ikastetxerik nagusie-

Oderik edo Aita-Sainduaren soldadoa

**Laphitz**

Airea: *Adios, ene maitia*

Makhilari: Nafarro-behererat ez jiteko zer duk?

Makhilak: Hauts nezazuen beldur nuk!

**1**

Aitorren semen artian  
Oderik ederrena;  
Nihun lanjerrik denian  
Oderik han lehena,  
Aiten ezpata gerrian  
Baten beldur ez dena.

**2**

Adios, ene maitia  
Zonbait egunendako,  
Erruman aita saildia  
laguntza galdez dago.  
Aita bat grinan uztia  
Zorigaitz haurrendako.

**3**

Sei mila gizonen entzun  
Justiziaren botza;  
Aberats, gazte, bihotzdun  
Armada loriosa.  
Justizia bera lagun  
Ez dute zeren lotsa.

**4**

Gaxtuek elgar harturik  
Errumari jazarri,  
Ihes ditu bentzuturik  
Oderikek ezarri.  
Ez daude behin jarririk  
Erruman aitzindari.

**5**

Nonbaitik uste gabian  
Armada bat agertzen  
Errhautsak haren bidian  
Iguzkia goibeltzen  
Oderik da furian  
Traidoria oldartzen.

**6**

Nigarrez oihartzunari  
Loretako ezkilak:  
«Errori dira, erori,  
Israelgo borthitzak,  
Odol ibaian igeri  
Horra nun dauden hilak

**7**

Bizia duk hirriskatu  
Oderik alferretan;  
Etsaiak dituk zilhatu  
Ezpataz hamarretan,  
Nahiz lagunekin sarthu  
Lorios zeruetan.

**8**

Norbaiti bizirik jinez  
Duk ekhartzen bizia.  
Hantxe dagok hire mine  
Nigarretan hurtia.  
Arranguran gau egunez  
Hitaz hire maitia.

nenetako bat bilakaturik zen, ospe handiko ikastetxea gainera. Baina Frantziskok lehenengo bokazioari eutsi eta Larresoron ikasketak bukatu ondoren, Baionako apaizgaitegi nagusian filosofia, zuzenbide kanonikoa eta teologia ikasiko zituen. Azkenean, 1857ko ekainaren 6an Baionako apezpikuaren eskutik apaiztu zen. Berehalak bere lehen postura igorriko zuen: Baigorriko Doneztebera. Han ia bederatzire urtez erretore laguntzailea izango zen; 1866an Zuberoako Alzaira aldatu zuten, hemen dagoeneko erretore postuarekin. Ez zuen, hala ere, askorik iraun herri honetan; heldu eta gutxira bizitzari aldaketa sakon bat eman zion, aita betharramiten kongregaziora sartu eta Amerikara bidali baitzuten.

Apaizaren lana garatzen ari zen bitartean euskaltzaletasunaren ildotik ibiltzen hasi zen. Gizon letraduna bezala, hartu zuen bidea

idaztea izan zen. Haatik, lan eskas batzuk baino ezin zituen moldategira eraman.

Euskal literaturarako lehen hurbilketa publikoa 1862an burutu zuen. Urte honetako Urruñako euskal jaietan (Antoine d'Abbadiek antolatutako «koblakarien gudetan») ohorezko aipamen bat («lehen aipamen ona») jaso zuen bere olerki historiko batek, *Oderik edo Aita-Sainduaren soldadoa* izenekoak.

Geroztik, Elizaren historiaren arlotik gehiegirik aldendu gabe, Euskal Herria abiapuntu-tzat hartu eta, 1867, bere lan idatzirik entzutsuena kalean zegoen jadanik: *Bi saindu heuskaldunen bizia. San Inazio Loiolakoarena eta San Frantzisko Xabierrekoarena*, Baionako Lamaignère moldategian inprimatua, egilearen izenik gabe. «Ez galda nor den errailea, baina errana har ongi gogoan», zioen izen-



Baionako seminario handian ikasi zituen Lapitzek filosofia eta teologia



buruaren azpian. Aholkua ez zen debaldekoa: Laphitzek hartu zituen bi santuak, euskaldunak ez ezik, jesuitak ere baziren, eta beraz orduko elizgizonen ikuspegitik bizitza kristau duin, harro eta pairamentsuaren erakusbide jarraigarriak. Biografia klasikorik onenetan oinarriturik, bi santu hauen bizitzak egungo euskaldunen eredutzat proposatu nahi zituen. Alabaina, helburu pedagogiko honek ez omen zion ezertan oztopatu eleberriaren kalitate eta arintasunari, erraz eta gozoz irakurtzen den liburua baitzen.



Lacroix Baionako apezpikuak apaiztu zuen Lapitz 1857ko ekainaren 6an

## Ameriketara misiolari

Baina, esan bezala, bere liburua argitaratu zen urte berean bizitzari erabateko aldaketa bat eman zion Frantziskok. Oso denbora gutxiren buruan apaizgo sekularra utzi, Betharrameko Bihotz Sakratuko kongregaziora sartu eta, berehala, Atlantikoa gurutzatzeko aginduko zioten, Euskal Herria betiko utziz. Hau guztia erabateko azkartasunez gertatu zen. Altxaiko erretoietza bertan behera utzi eta 1867ko irailerako dagoeneko bere lehen botoak emanak zituen betharramitekin. Amerikarako biidaia ere horrenbesteko presarekin antolatu zen; iturriak ez datoz bat, baina badirudi urte bereko azken hilabetean Baionako portutik itsasontzia atera zela. Helmuga: Montevideo.



Lapitzen lan idatzirik entzutetsuena bi saildu euskalduni eskainitakoa da

Nortzuk ziren aita betharramitak? Biarnoko Betharram santutegiaren izenarekin bataiatuak baziren ere, kongregazio erlijioso hau 1835ean euskaldun batek sortu zuen: Mitxel Garikoitz baxenafarrak. Hasiera batean Baionako elizbarrutian zehar zabaldu ziren betharramitak, diozesiaren ikastetxe katolikoak zuzenduz. Aita Garikoitz oraindik bizirik zegoelarik (1863an hil zen), kongregazioko kide batzuk Argentina eta Uruguaira bidali zituzten, Montevideon eta Buenos Airesen etxe edo komentu bana eraikiz. Montevideon sei urteren buruan egon ondoren, bertoko betharramitek (jendeak «aita baiondarrak» edo «euskal aidak» izenez ere ezagutzen zuten) ikastetxe bat irekitzea erabaki zuten. Izan ere, 1867an bertan beste hiru apaiz heldu ziren Betharrametik, ikastetxe honen irakaslegoa osatzeko.

Urriaren 1etik aurrera ikastetxea martxan zegoen jadanik; eta Frantzisko Lapitz heldu zenean, hortaz, beste postu batera zuzendu zuten. Montevideoren badiaren bestaldean Cerro izeneko auzo berri bat bazegoen. Auzo hau portua babesten zuen mendixka baten magalean Uruguako gobernuek sortu eta bultzatu zuten, Europatik barra-barra etortzen ari ziren etorkinei kokapena eta bizilekua emateko. Horien artean euskal herritar ugari baziren, Iparraldekoak zein Hegoaldekoak. Montevideoko Bikarioak —artean Uruguatik ez zuen apezpikurik— auzo honetan parrokia bat eratu nahi zuen, eskakizuna aita



Frantzisko Lapitzek Uruguai eta Argentinan egin zuen apaiz lana

Montevideo XIX mendearen azken aldera, Lapitz iritsi zenean zuen

Harbustan betharramiten nagusiari igorritz. Baina honek ezin zuenez, ikastetxeak arreta osoa eskatzen baitzion, heltzeaz zegoen aita Laphitz aukeratu zuen kargu honetarako. Horrela 1868ko urtarrilaren 10ean, lehorre-ratu bezain laster, Cerroko kapilautza onar-tuko du. Hasteko tenplu berri bat altxatu behar du zimenduetatik. 1871n badirudi lanak bukaturik daudela, eta eliza berriari Arantzazuko Andre Mariaren izena emango zion. Ez zen, bada, harritzekoa, Cerro auzoko euskal-dunek eliza honen sostenguan esku-hartzet handia izan baitzuten. 1872ko irailean Montevideoko Bikarioak izen hau onartu eta parrokia formalki eratu zuen, aita Laphitz lehen erretorea izendatuz.

Baina ez zuen lan honetan luzaroan iraun. 1875ean *Río de la Plata* gurutzatzeko agindu zioten, Buenos Airesera joateko. Bertan betharramitek eliza, ikastetxe eta kapilautza bat beren ardurapean bazituzten, 1856tik Argentinako hiriburura heldu zirenetik. Baionatik lehen espedizioa ailegatu zenean, Buenos Aireseko apezpikuak apaiz heldu berriak San Juan elizan kokatu zituen; bertan lekai-me kaputxinoetako komentu bat bazegoen, eta betharramitek horien kapilautzaz arduratzea onartu zuten. Pierre Sardoy lehen kapilaua hil zenean, Frantzisko Laphitz horren postua betetzera bidali zuten. Bertan hogei-ta hamar urtez mantenduko zen, 1905ean hil zen arte.



Montevideoko badiaren bestaldean Cerro izeneko auzoa zegoen muino baten gainean

## Panpetan barrena

Kapilautza baten lan arruntaren mugak, hala ere, estuegiak zitzaizkion. Buenos Airesen, gainera, ez zegoen apaizik soberan, eta pixkanaka bertoko Elizaren agintariak begiak Frantzisko Laphitzen gaitasunaren gainean jarri zituzten. Eta hortik 1878an oihartzun handiko lehen betekizuna etorriko zitzaion. 1865 eta 1870ean Hegoamerikako lau estatuk gerla odoltsu bati ekin zioten: historiari «Paraguaiko gerla» edo «Aliantza Hirukoitzeako gerla» izenekin ezagutzen du. Alde batetik Paraguai zegoen, eta honen aurka Argentina, Uruguai eta Brasil elkartu ziren. Ez zen, edonola ere, lau nazio hauek elkarren

kontra borrokatzen zuten lehen aldia; baina oraingo honetan bukaera arras desberdina izan zen. Txikizio izugarri baten ostean, aliatuak su eta gar sartu ziren Paraguaia, hiriak eta zelaiak suntsituz, hamalau urte baino gehiagoko gizon guztiak erahilez, eta emakumeak bortxatuz. Paraguaiko populazioaren bi herenak desagertu ziren bost urtetako borrokaldi hartan. Eliza ere ez zen itzuri hondamendi honetatik; hau dela eta, Elizako agintariak misio bat bidali zuten, Paraguaiko Eliza berrantolatzeko aginduarekin. Buenos Aireseko artzapezpikuak bere konfiantza osoko hiruzpalau apaiz atontzea erabaki zuen, horien artean Mariano Espinosa —artzapezpikuaren idazkaria, eta gerora apezpikua ere izango zena— eta Frantzisko Laphitz, horren lagun mina baitzen. Dirudienez aita



Euskaldunak zaldi gainean, eremu zabal haietan



Cerro auzo horretan kapelau izendatu zuten Laphitz, Arantzazuko Amabirjinari eraikitako elizan

Laphitzek Paraguain egin zuen lana asko preziatu zuten; Asunción Paraguaiko hiriburua-  
ren apezpikutzatza behin-behinean hartzeko  
erregutu zioten agintari politiko eta eklesias-  
tikoek; baina honek eskakizunari uko egin  
eta Argentinara itzuliko zen<sup>1</sup>.

Edonola ere, handik aurrera ez zen San Juan  
elizako babespean luzaroan geratuko. Artza-  
pezpikutegian hainbat kargu eman zioten,  
besteak beste San Francisco Solano elkartea-  
ren zuzendariordea izan zen (kristautasuna  
Amerikako herri indigenoengan zabaltzeaz  
arduratzan zen elkartea hau); eta Argentinako  
hiriburuan eta inguruko herrietan predika-  
tzaile kementsua izateko fama eskuratu zuen.  
*Los Baskos en la Nación Argentina* liburuan  
aitortuko zen bezala, «pampak gurutzatu  
zituen gure apezpikuen bisita pastoraletan  
lagunduz»; misioetan hizlari trebea baitzen.  
Argentinako Eliza Katolikoaren agintariek  
ere errekonozimendu hau egin zioten, bes-  
teak beste *Boletín Eclesiástico de La Plata*-ko  
pasarte honetan:

La Platako Elizbarrutiaren kideek beren ten-  
pluetan aita Laphitz misio desberdinetan  
ikusitako Aneiros eta Espinosa apezpikuak  
lagunduz [...]. Hiriburu Federalean ia ez dago  
Aita Laphitz ezagutzen ez duenik, pulpitu-  
an ikusteko aukerarik izan ez duenik, aitortzean  
bere kontseiluak hartu ez dituenik, beren la-  
guntza behar zuten hainbat arima galdu eta  
erirengana karitatezko eta gupidazko hitzak  
eramateko bere grina miratu ez duenik.

1896an trebezia hau erakusteko parada ezin  
hobea aurkeztu zitzaion. Lurrikara batek San  
Juan, La Rioja eta Mendozako probintziak bi-  
rrintzen ditu, batez ere Andeetako mendika-  
tearen inguruetan. Buenos Aireseko karita-  
teazko elkartea katolikoek laguntza-espedizio bat  
antolatu eta honen buru Frantzisko Laphitz  
jarriko dute. Laphitzek eskualderik erasotue-  
nak bisitatuko ditu, «hango biztanleen eskue-  
tan Buenos Aireseko jendearen eskuzabalta-  
sunak bidalitako amoinak zabalduz», lekuko  
izengabe batek aitortzen zuen moduan.



Prediku asko egin zituen Lapitzek Arantzazuko Andra Mariaren  
elizan euskaraz



Arantzazuko Amabirjina, Errodrigotxo artzaina eta ardiak ondoan dituela

1901ean, azkenik, *Conservación de la Fe* elkar-  
tearen fundatzaile eta bultzatzaileetako bat  
izango zen, Luis Duprat apaiz frantsesarekin  
batera. Aspalditik eliza protestanteak nahiko  
zabaldurik zeuden Argentinan; eta hauen in-  
darrari aurre egiteko, elkarre honek tenplu  
eta ikastetxe katolikoak eraiki nahi zituen, ten-

plu eta ikastetxe protestanteak altxatzen ziren  
auzo eta herri guztietan, «Buenos Aireseko  
oligarkiaren familia katolikoek sosak eskura-  
tuz (hiriko «pertsonek eraginkorrenetako  
babesarekin», orduko esamoldeetan). Bera  
hil arte, ekimena arrakasta ezin handiagoaz  
bideratu zen<sup>2</sup>.

## Ameriketako euskaldunak

donola ere, lan mardul honek guztiak ez dio erantzuten hasieratik buruan bueltaka ari zaigun itaun bati: zer dela eta erabaki zuen Frantzisko Laphitzek bere Euskal Herriko bizitza uztea eta Amerikarako bidea betharramitekin batera hartzea? Zerk bultzatu ote zuen deliberamendu honetara? Hau guztia ulertzeko, 1852ra itzuli behar dugu. Urte honetan gutun bat helarazten dio Buenos Aireseko apezpikuak Baionakoari: Argentinan euskal etorkin ugari dagoela, bere diozesian apaiz gutxiegi daukala, eta gainera, apaiz hauek ez dakitela euskal etorkinen hizkuntzaz mintzatzen, euskaraz alegia.



Ostatu honetan bildu ohi ziren euskaldunak Argentinara iritsitakoan

Handik gutxira, gutunetako elkartruke baten ondorioz, Baionako apezpikuak zenbait apaiz boluntario bildu ahal izan zuen; eta Mitxel Garikoitzen laguntzarekin, Betharrameko kongregazio jaio berriak bere gain hartu zuen «Ameriketako misio» hau. Berehala aita betharramitak euskaraz predikatuak, bataioak, sakramentuak, misioak, eta abar... hasiko dira ematen. Buenos Aireseko San Juan eliza, laster asko, *euskaldunen eliza* goitizena hartu zuen; Montevideon ere beste *euskaldunen eliza* bat eraikiko zuten, Sortzez Garbiaren parrokian. Gaur egun oraindik kaleko hizkeran izen hau gorde dute tenplu biek. Baina

denborak aurrera egin ahala, hasierako bultzada gibelaratzen ari zen: enkargu berriek apaizen arreta bereganatu eta euskaldunekiko lanaz arduratzeko apaiz berriak falta ziren. Ziur aski Frantzisko Laphitzen belarrietara helduko omen ziren Amerikatik zetozen arrangura hauek; izan ere, hala onartzen du aita Laphitz hil eta berehala horren lehen biografia idatzi zuen fraideak: «bere burua Betharrameko Kongregazioari eskaini nahi izan zion Hegoamerikako euskaldunak ebanjelizatzeke asmoz». Agian ere Argentinan senideak zituelako, gero ikusiko dugun moduan? Auskalo. Hala eta guztiz ere, Frantzisko Laphitzentzat Amerikara joateak ez zuen esan nahi Euskal Herriarekiko atxikimendua galduko zuenik. Alderantziz, Uruguain lehenago, eta Argentinan geroxeago, bertoko euskal etorkinen etengabeko aitzindari eta laguntzailea, eta orobat euskaltasunaren bultzatzaile sutsua bilakatuko zen. 1900ean bere adiskide Jose Ramon de Uriartek azaldu zuen bezala:

Aita Laphitz, bere bertute eta ilustrazioarekin batera, euskaltzalerik onenetako bat izatea batzen du; eta Argentinan bizi izan den hogeita hamabi urteetan, bere erki-deen artean jaioterriarekiko atxikimendua mantentzen lan gehien egin duena izan da.

Horretarako, euskaraz igandero arratsaldez San Juan elizan predikatzeaz gain, euskal misioak antolatu ditu, eta euskal kolektibitatearen zati handi baten aita, arima eta kontseilaria ere izan da.

Ezin daiteke aurkitu, ez, Frantzisko Laphitzek Amerikan euskaltasunarekin izan zuen harremana hobekiago laburbiltzen duen deskribapenik. Dagoeneko Amerikara heldu berriazenean jarduera honi ekin zion, Montevideoko Cerro auzoan. Gogoratuko dugunez, bertoko euskal kolonia zabala zen, baina auzo honetako kideek oso urruti zuten Montevideo hiriko *euskaldunen eliza*. Frantzisko Laphitzek bere kapera berriaren inguruan bildu zituen Cerroko euskaldunak. Hemen ekin zion euskarazko predikuak eta mezak emateari; honetarako hizkuntza trebatu eta landua erabil-



Buenos Airesko San Juan eliza honetan egin zituen 30 urte, 1905ean hil zen arte



tzen bazuen, Iparraldekoek eta Hegoaldekoek erraz asko ulertzeko modukoa. Azkenean Cerroko parrokia Arantzazuko Ama Birjinaren izenpean eratuko zen, hasierako urteetako euskal presentzia bortitz honen adierazle; harik eta 1930ean Aragone Montevideoko artzapezkipuak izena aldatuko zion arte.



*La Basconia* aldizkariak ere, 1904an, asko goraiatu zuen Lapitzen euskaldunen aldeko lana

## San Juan elizan

Buenos Airesera joan eta gero lan berari ekin zion Argentinan. San Juan eliza abiapuntutzat hartu, Argentinako hiriburuko eta inguruko herri eta hirietako euskaldunak bildu eta antolatzen hasi zen. Artean euskal herritarrek ez zuten euskal etxerik sortu —1877an irekiko dute Buenos Aireseko «Laurak Bat», soilik Hegoaldekoentzat—. Lehenago Uriartek argitu digun bezala, igandero arratsalde euskarazko mezak ematen zituen, eta noizbehinka misioetara ateratzen zen, hots, euskal etorkin asko bizi ziren eskualdeetara hurbiltzen zen, euskaldunen elizara bertaratu ezin zirenek ere kristautasunaren predikazioa euskaraz har zezaten. Hasiera batean ia beste inor ez zen arduratu euskal misio hauetaz, bere kongregazioko komentuan ere



*Euskaldunen eliza* deitzen zitzairen Buenos Airesko San Juan eta Montevideoko Arantzazu elizei

ez baitzegoen euskaraz egoki mintzatzen zekienik; izan ere, gero eta bokazio gehiago ari zirtzaion heltzen Betharrameko kongregazioari Biarnotik; eta hortaz apaiz euskaldunen kopurua asko murriztu zen bere kideen artean. Erronka handia zen. «Duela hogeita hamar urtetatik hona», esaten zen 1904an *La Baskonia* aldizkarian, «berak bakarrik San Juaneko eliza honi euskal nortasuna eman eta mantendu dio; euskarazko sermoi eta misioekin, euskal familiei jatorrizko izaera eta erlijiosotasuna biltzen, elikatzen eta eusten laguntzen die». Andres Irujok behin komentatu zuenez, familien barneko euskaltasunaren mantentzeari sekulako garrantzia ematen zion; bere ustetan, euskal herrietako hizkuntza eta ohiturak gordetzen ziren heinean, kristautasuna ere irmo finkatuko zen euskal-amerikarren bihotzetan. Euskal familietako seme-alaben arteko ezkontzak susta-

tzen ere saiatu zen, iganderoko mezetara heltzen ziren gazteei elkarren berri emanez; horrela, Jainkoak lagun, etxe euskaldun eta kristau berriak osatuko zituzten euskal etorkinen ondorengoek.

1880ko hamarkadatik aurrera, Argentinako lehenengo euskal elkarteak sortu zirenetik, hauekin harreman estuak eratu zituen. Esaterako, 1882an Laurak Bat euskal etxeko agintariek Buenos Aireseko frontoi berria inauguratu zutenean, «Plaza Euskara» izeneko, Frantzisko Laphitzek bertan landatutako Gernikako Arbolaren kimua bedeinkatu zuen ohorezko ekitaldi batean. Ekitaldi honetara ez zen etorri Buenos Aireseko euskal kolektibitatearen itzal handiko pertsonaia bat: Martin Errekaborde, Zalgizeko zuberotarra eta oso euskaltzale sendoa. Arrazoia garbi zegoen: ekitaldia *Centro vasco-español* batek antolatua zenez, bertan igoko ziren banderak bi baino ez ziren izango: espainola eta argentinarra, eta berak ez zuen bere burua ez batean ez bestean ordezkaturik. Artean, esan behar da, oraindik oso ezaguna ez bada ere, euskaldunek berezko bandera bat bazuten, gaurko ikurrinaren aitzindaria; baina hau ere ez zen jarri egun hartan. Laphitzek, hurrengo urteetan, Laurak Bat euskal etxearekin erlazioa areagotu zuen, elkarte honetan euskal kultura eta elkarrekiko laguntza bultzatuz. Patricio Jaka Otaño bere lagunak gogoratzen du nola euskarazko ikastaro bat antolatu nahi zen behin batean, pro-



Ameriketan erabilia izan zen euskal banderaren marrazkia (1881)  
(diseinua: Aingeru Astui)

posamenari bere laguntza osoa eskaini zion: «Hemen, Argentina nazio adoretu honetan», bota zuen Laphitzek orduko hartan, «zuen seme-alabei hizkuntza ugari irakats diezazueke: gaztelania, frantsesa, ingelesa, eta esfortzu pixka batekin, baita hebraiera edo turkiera. Euskara da ikastetxerik ez duen hizkuntza bakarra». Esan gabe doa euskara



Frantziatik eta Espainiatik joandako euskaldunak bereizten hasi ziren, baina Lapitzek gogor egin zuen lan denak elkartzen

irakasteko saiakerak ugari izan direla Ameriketako euskal etxeetan, baina salbuespenak salbuespen, ez ohi dute luzaroan iraun, oztopo ugari direla medio.

1890eko hamarkadan egoera zertxobait aldatzen hasi zen. Hasiara batean, Ipar Euskal

Herrira laguntza eske zuzendu zen, baina alferrik; esaterako 1892an Jean-Pierre Arbelbide Hazparneko Misionesten ikastetxeko nagusiari idatzi zion, Argentinara zenbait apaiz euskaldun bidal zitzaizkien; Arbelbidek, apaiz gutxi zuela eta, ezetz esan zion. Bainaaldi berean, gero eta apaiz euskaldun gehiago heltzen ari zen Argentinara, batik bat Hego Euskal Herritik. Bigarren gerrate karlistaren amaierarekin kongregazio erlijiosoek Espainian berriro ezartzeko baimena lortu zuten; oso urte gutxiren buruan Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan bokazioak lortaldian zeuden. Hain zen oparoa uzta hau, fraide berriek Euskal Herriko eta Espainiako komentuak betetzeaz gain, Amerikara bidaltzeko ere nahikoak izan ziren: karmeldarrak, frantziskotarrak, kaputxinoak... Hauengan Frantzisko Laphitzek bere proiektuei bultzada bat emateko aukera ikusi zuen; eta baita lortu ere. Misioak ugaltu ziren: Buenos Aires, Luján, Avellaneda, La Plata, Moreno... baina batez ere San Juan elizan; ordurako laguntzaileak bazituen: aita Belsunce eta aita Salaberri, bera bezala betharmitak, Buenos Aireseko Nueva Pompeyako santutegira etorri berriak ziren kaputxino nafarrak, Bonifazio Zamalloa karmeldar bizkaitarra... 1901ean, adibidez, bertaratu zen jende kopurua oso altua izan zela azpimarratzen da, «iazkoa bezain kopurutsua, ez baitago beti nazio honetan hain hizlari trebeak batera gure hizkuntz ederrean entzuteko aukerarik».

## Euskal Echea

Apaiz heldu berri hauen laguntzarekin beste aurrerapauso bat emateko ordua iritsia zela iruditu zitzaion. Alde batetik, Buenos Aireseko euskal kolektibitatearen egoera ez zen oso osasuntsua: aurreko hamarkadan sumatzen ziren batasunerako bideak hartu ordez, banatzen ari zen, batez ere 1895ean bi elkarre berri jaio zirenetik, *Centre Basque-Français* eta *Centro Navarro*. Gainera, euskal etxe hauek jorratzen zuten esparrua oso mugatua zen: kirola eta aisialdirako espazioak bilakatzen ari ziren, noizean behin kulturarako tartetxo bat irekiz; baina hasiera bateko helburu handinahikoak



Dantzarien irudiarekin aldarrikatu zuten *Euskal Etxea*, 1931n

denborarekin urtzen ari ziren. Gainontzeko nazio eta herrietako kolektibitateek, aldiz, elkarlaguntzarako bidea oso garatua zuten: italiarrek, ingelesek, frantsesek, espainolek... ikastetxeak, ospitaleak, umezurztegiak, zahar-etxeak eta abar bazituzten. Euskaldunek, aldiz, frontoiak ia besterik ez. Honen guztiaren aurrean, Frantzisko Laphitzek:

[...] anitzetan intimitatean arima irekitzen zuenean esaten zuten: —gure erkideek arra-

kasta lortzen dute Ameriketean, etxeko su-pazterretik ateratzen diren energia moralei esker, baina handik aurrerako bizitzan bi arrisku ezezkor itxaroten ari zaie, bata bestea baino larriagoa: [...] hezkuntza-eza [...] eta luxu eta nagitasunerako joera. Hezi behar dugu, esaten zuen, baina lanarekin batera estu-estuki hezi behar ditugu gure seme-alabak [...], batik bat emakumeak, hauek gizartearen eraikuntzaren zutabea baitira.

Hezkuntza, beraz, beharrezkoa zitzaien euskal-amerikarren belaunaldi berriei. Eta dagoeneko zahartasunera sartuak zirenentzat?

Zahartetxeei buruz itauntzen ziotenean, zera esaten zuen, min gatzaz: askoren uste-tan ez dago euskal zahar pobrerik, baina neuk badakit, asko eta asko Karitatezko Zahartetxe zentrolean daudela, neuk eza-gutzen ditut —eta egoera honen alderik larriena da kolektibitateak ez dituela ezagu-tzen, beren duintasunari esker, eskertze-koa baita, kalean eskaleak izan baino, nahia-go izan dutela zahartetxean giltzapeturik egon.

Frantzisko Laphitzen ekimenez eta bultza-daz, euskal herritar talde bat bildu zen Buenos Airesen helburu hauek guztiak asetuko zituen instituzio berri bat osatzeko asmoz. Martin Errekaborderen laguntza hasiera-hasieratik lortu zuen, elkarteak inongo estutasun ekonomikorik gabe jaioko zen beraz. Horrela, 1900eko apirilaren 1ean formalki eratu

zen *Euskal Echea*, osasuna, hezkuntza eta elkarlaguntza jomuga nagusiak zituelarik. Frantzisko Laphitz elkarte berriaren ohorezko lehendakaritzat hautatu zuen lehen komisiok. Bere izenpea agertuko zen, hortaz, Euskal Echeak zabalduko zituen deialdi guztietan: instituzio berriaren aurkezpen publikoan, eta gero, estatutuek behartuta eraiki nahi zituen ikastetxeak eta zaharren egoitza ordaindu ahal izateko akzio-salmentaren deialdian.

Euskal Echearen eraketaren lerro nagusietan Laphitzen pentsamenduaren islada ederki asko adierazten da; hasteko, bertara euskal herritar guztiak —eta beren ondorengoak— sartu ahal izango dira; berdin dio *vasco-españolak*, *vasco-francésak* ala *vasco-argentinoak* diren. Jarraian:

Hau guztia bete zedin, onuragarria —eta are gehiago— beharrezkoa deritzo elkarte berriari, pobreentzako laguntzaz gain, euskal herritarrentzat zerbitzu hauek eskaintzea: zahartetxeak, umezurtzentzako eskolak, karitatezko etxeak behartsuenentzat, eta kape-ra edo elizatxo bat erlijio-elizkizunentzat; baina ez hau bakarrik, guztion mesederako ere izango da euskaldunen seme-alabentzako ikastetxeak eraikitzean, bertan euskal seneko irakaskuntza emanez, odolaren lotura sakratuek zutik iraun dezaten.

Hemen, beraz, bi helburuek elkarri eskua ematen zioten. Euskaltasunaren ikuspegi zabal eta oso baten aldarrikapena eta horren mantentze eta zabaltzearen aldeko asmo

# EUSKAL-ECHEA



Dirección y Dabellón



Dabellones



Vista general

Euskaldunen topagune zen *Euskal Echea*

irmoarekin batera, Euskal Echeak emango zituen zerbitzuak ere praktikotasunaren ildotik zebiltzan. Euskal Echeko ikastetxearen hezkuntzak helburu bikoitza planteatzen zuen: euskal nortasunari eustea, baina aldi berean euskaldunen ondorengoak Argentinan ahalik eta hobeto integratzea ere. 1904an ikastetxearen lehen eraikuntza ia-ia bukaturik dago, Buenos Airesetik gertu dagoen Llavallol herrian. Urte berean Angelutik Mariaren Zerbitzarien kongregazioko lekaimeak etorri dira, emakumezkoen ikastetxeaz eta zaharren egotzaz arduratzera; ongietorria eman zien komisioren burua Frantzisko Laphitz izan zen. Euskal Echearen lehen zuzendaritza osatzen denean (1904ko maiatzean), aita Laphitzek elkarrearen idazkaritzari uko egin behar zion, osasuna oso makaltzen ari zitzaiolako. Ezin izan zuen, hala ere, gizona zkoen ikastetxearen

irekiera ikusi: lehenengo kaputxino nafarrak heldu baino pixka bat lehenago hil baitzen, 1905eko urriaren 25ean, Buenos Airesen.

Argentinako euskal kolektibitatean oihartzun handia izan zuen bere heriotza:

Hizlaria izan zen, poeta izan zen, santua izan zen, maitatua eta errespetatua izan zen. Gauza guztien gainerik euskalduna izan zen<sup>3</sup>.

Ezagutza handiko pertsona izateaz gain, honen froga garbiak eman baitzituen beti, euskaltzale oso estimatua izan zen. [...]. Benetako euskaldun baten izaera fisiko eta moral guztiak batzen zituen; bere herria oso gertutik maitatu zuen, eta bere herriaren bertuteak atzerrian ahalik eta gehienetan zabaltzeaz arduratu zen<sup>4</sup>.



Haritz hostoa erabili ohi zuten «Euskal Echea»ren ikur eta ezaugarri




1934ko ohorezko liburuan, Euskal Echeak baikortasunez hiru hamarkadetako bilakaera erakusten du

Bere omenez, Euskal Echeak gizonezkoen ikastetxearen pabiloi bati Frantzisko Laphitz izena eman zion. Nafar euskaltzale honen izena oraindik dirau, Argentinan, berak sortzen lagundu zuen eta Argentinako euskaldunen ekimenik inportanteena izan zen Euskal Echearen egoitzan.

## Francisco E. Laphitz eta Francisco R. Laphitz

Gure liburutegi nagusietara hurbiltzen bagara, esaterako Bizkaiko Foru Aldundikora ala Donostiako Koldo Mitxelenara, eta hango katalogoetan arakatzen hasten bagara, berehala agertuko zaizkigu Frantzisko Laphitzen liburu eta bestelako lan batzuk. Ia denak



Euskal Echea-ko ohorezko lehendakari izendatu zuten Lapitz, 1900ean



gaztelaniaz, eta gehienak gure Frantzisko Laphitz hil baino urte dexente geroago argitaratuak. Egilea, bai, dudarik gabe apaiza da, eta Euskal Echeko kapilau bezala aurkezten du bere burua lan hauetan. Izan ere, hauetako batzuk 1910eko hamarkadako hitzaldi eta sermoinen bertsio idatziak dira... baina nola da posible, bada, Frantzisko Laphitz 1905ean hil bazen?

Erantzuna argia bezain erraza da. Bi aita Laphitz egon ziren; biak apaizak, biak Frantzisko izenekoak, biak euskaltzaleak eta Euskal Echea elkarteari loturik. Osaba eta iloba. Lehenengoaren inguruan, hots Frantzisko Esteban Laphitzi buruz, sakonki hitz egin dugu

orain arte; bigarrenak, aldiz, guztiz ezezaguna; eta Euskal Herrian zein Argentinan osabaren itzalpean ilundurik geratu da. Bakoi-tzari berea eman behar zaionez, ilobaren bizitzaren zertzelada batzuk emango ditugu.

Argentinarra zen, Corrienteseko probintzian jaioa; Francisco Romualdo izenarekin bataiatua. 1899an apaiztu zen Buenos Airesen, eta zenbait urtetan bere osabaren laguntzailea izan zen Euskal Echearen eraketan. 1906an Euskal Echeak emakumezkoen ikastetxe berri bat ireki zuen Buenos Airesen bertan, eta Francisco R. Laphitz bertoko kapilaua izendatu zuten. Orduetik aurrera gehiago lotzen



Portuan ere zamaketari lan asko egin ohi zuten euskaldunek



Montevideoko badia, Cerro eta hiriaren artean, xix. mendean

da euskal elkarte honekin. Jai nagusietan, bazkideen aldeko urteroko hileta-elizkizunetan, eta oro har edozein ekitaldi publikotan parte hartuko zuen; bere hitzaldietako batzuk Euskal Echearen komisioak liburuxkatan zabalduko zituen. Aldi berean, kazetaritza katolikoaren bultzatzaileetako bat izan zen, *Falucho* izengoitiarekin —baten batek izengoiti hau, honen pean 1910 eta 1920ko ha-

markadetan argitara eman zituen artikulua bezala, bere osabari leporatu dizkio—; eta baita Montevideoko euskal kolektibitatean ere harremanak izan zituen.

Oso gazte hil zen, Burzacon (Buenos Aires), 1925ko apirilaren 16an. Osabarekin gertatu bezala, itsasoz bestaldeko euskaltzaletasunak lagun eta adierazle bat galdu zuen.

## Oharrak

- <sup>1</sup> *Notice polycopiée. Biographie*, Betharrameko Bihotz Sakratuaren kongregazioko artxibua, Erroma, dok. 2095, circa 1905. *In memoriam Francisco Laphitz*, Corbeil (Frantzia), 1905, 10 orr.
- <sup>2</sup> Omenaldi bezala, Palermo auzoko eliza eta eskola berri batzuei San Francisco Javier eta Padre Francisco Laphitz izena ematea erabaki zuen 1905ean Conservación de la Fe elkarteko zuzendaritzak (*Boletín Eclesiástico de La Plata*, La Plata (Argentina), VII (1905), 439 orr. Baita ere: «A la memoria del P. Laphitz», *La Baskonia*, Buenos Aires, XIII:436 (1905-XI-10), 65 orr.).
- <sup>3</sup> LAPHITZ, Francisco R.; «El Clero Baskongado», *Los Baskos en la Nación Argentina*, Buenos Aires, 1916, 438 orr.
- <sup>4</sup> «El P. Francisco Laphitz»; *La Baskonia*, Buenos Aires, 435 (1905-X-30), 39 orr.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagaririk, eskerrak eman nahi dizkie:

- Auñamendi Enziklopediari
- Klasikoak bildumari
- Bidegileak bildumari

### **Bibliografía**

Aipatutako bibliografiaz gain, hauek ere kontsultatu ditugu:

- *La Baskonia*, Buenos Aires.
- *Boletín Eclesiástico de La Plata*, La Plata (Argentina).
- *Revista Eclesiástica del Arzobispado de Buenos Aires*, Buenos Aires (Argentina).
- *Euskal-Echea. Bosquejo histórico y recopilación de las opiniones de la prensa diaria, vertidas con motivo de la presentación de sus colegios de Llavallol (F.C.S.)*, Buenos Aires, 1913.
- MIEYAA, P.: *La vie de Saint Michel Garicoits*, Paris, 1948, 1210.
- *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, Buenos Aires, I (1950), 107-108.
- CUTOLO, V.O.: *Nuevo Diccionario Biográfico Argentino (1750-1930)*, Buenos Aires, 1968, IV, 70-71.
- VILLASANTE, L.: *Historia de la Literatura Vasca*, Oñati, 1979, 170-171.
- *Federación de Entidades Vasco Argentinas*, Vitoria-Gasteiz, 1984, 97, 238.

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	I.a, 2005eko abendua
Ale-kopurua:	3.000
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2365-0 (Lan osoarena) 84-457-2368-5
L.G.:	BI - 2871-05

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística